



ORIO
marea bizian

Euskara

2023

EUSKARAZ GAZTE

SARIAK

LITERATUR LEHIAKETA

IPUINAK

- 1. SARIA: Ramon**
Iñigo Gaiton
 - 2. SARIA: Fisherman's Tale**
Aritz Pardina
 - 3. SARIA: Alfajarin**
Garazi Urretabizkaia
- Accesita: (A)fi(k)zioa**
Ainhoa Mujika

OLERKIAK / BERTSOAK

- 1. SARIA: Luiziak**
Ainhoa Mujika
 - 2. SARIA: Ezerrez ta asko**
Xabier Iribar
 - 3. SARIA: Oria: Aizkorritik itsasora**
Xabier Sukia
- Accesita: Juan Zen**
Iñigo Gaiton
- Accesita: Aulki morea**
Rosi Lazkano

RAMON

Iñigo Gaiton

Santa Katalina noiz da? Bisigutarako goiz da...

—Esaera zaharra

Egun Handietako giroa zuten etxekeen artean larunbat hartan. Errio aldameneko erretegiaren zeuden denak, terrazan, plastikozko karparen azpian. Dezente juntatu ziren mahai bueltan, eta bete-beteta ziruditen: urdaiazpikoarekin hasi, entsalada pixka bat gero, langostinoak erreta eta, bukatzeko, bisigua. Txakolina ere ona ari ziren edaten, freskoa, bizigarria.

Haien aldamenean bikote kanpotar bat eseri zen, edadekoak biak, txukun jantzita. Halako asko izaten zen herrian asteburuero, gero eta gehiago. «Hemen ere laster gaituk Getarian eta Zarautzen bezala, turista artean kabitu ezinda» pentsatu zuen Ramonek bere golgorako. Ez zion aparteko pisurik eman ideari, baina nahi baino gehiagotan etortzen zitzaion burura azkenaldian.

Bere baitan sartuta, zerbitzaria bi kanpotar-rrengana hurreratzen ikusi zuen, eta kartako arrainak erreztatzeari ekin zion. Ez zuen ezagutzen 20 bat urteko gazte hura, baina bazekien herrikoa zela, lagun baten iloba. «Agian, arraina hemen, gure kostaldean, harrapatua dela sinetsiko ditek kanpotar alu hauek», mikaztu zitzaion umorea. «Inozoak!». Bere barrunbeak ondo ezagutzen zituen Ramonek, eta txakolinak buru barruan errebuelta azkar har zezakeela jakinda, aldartea gehiago mikaztu aurretik, begirada bere mahaira eraman zuen bueltan.

Aurrean Jon zuen, 25 urteko semea. Itsas Ingeniaritza Unibertsitate Masterra bukatzen ari zen Bilbon, eta han bizi zen beste bi lagunekin batera. Bikotearekin gorabeheraren bat izan eta gero, itzali samar zebilen mutila. Ez zen gairik aproposena familiar-teko bozkariozko girorako, baina Jonek jarri zuen mahai gainean, eta txeraz heldu zion aitak.

Ingurukoek hizketaldia maiz eten arren, nola edo hala gaian sakontzea lortu zuten biek, eta semearen karga pixka bat arintze aldera, Bernardo

Atxagari irratian entzundakoa bota zion Ramonek. Txakolinari tragoa jo zion aurretik. «Maitasunaren minak eta haginekoak berdina dituk, Jon. Biziak oso, baina sekula ere ez grabaek», eta beste tragoxka bat ondoren. Elkarri begira egon ziren biak tartetxo batean, isilik, eta semeak garagardoz betetako edalontzia aitaren begien parean jarri zuen topa egiteko.

Txin-txin egin eta gero, semeak galdera bat egin zion:

—Aita, eta zuk zer arraio egin behar duzu erretiroa hartutakoan?

Isiltasuna berriro. Segundo batzuk pasatukoan, aitak altxatu zuen txakolin kopa semearen betaurrekoen pareraino, eta bi kristalen talka lehen baino baldarrago entzun zen; *klink* fin bat beharrean, ia *klonk* bat.

—Lasaiago bizi. Edo behintzat, horretan saiatu.

Distira handirik gabeko erantzuna izan zen, laua, soila. Ez zen bizitasunik Ramonen hitzetan, ez behintzat Egun Handi hartako iji eta ajekin alderatuz gero. Izan ere, bazuten zer ospatua familian, bazen ospakizunerako arrazoi handi bat: bizitza osoa itsasoan egin eta gero, etxe azken patroia jubilatzeraz zihoan. Bera zen ospakizunaren motiboa, Ramon, denak bazkaritarako juntatu izanaren aitzakia.

Ramon ohituta zegoen arrantzale guztiei batera hitz egitera, agintzera, tripulazioaren begiraden jomuga izatera. Eroso eta seguru bilatzen zuen bere burua baporean, itsaso zabalean, baina lehorrean nahi baino lan gehiago izaten zuen bere buruarekin. Ume-umetatik saiatu zen zalapartarik ez ateratzen eta nabarmendu gabe pasatzen eskolan eta lagunartean, besteek beraz pentsa zezaketenaren beldur.

Egun Handi hartan ere etxekeen artean gus-tura egon arren, ospakizunaren erdigunean

egotea tokatu zitzaion, eta poztasun bete-betetik aldentzen zuen egoera hark. Ezkontza egunarekin gogoratu zen, orduko egonezinarekin identifikatu baitzuen oraingoa. «Urteak joan dituk ordutik, baina alferrik duk, orain ez nauk aldatuko» pentsatu zuen.

Bere kabuetatik aterata, betiko postrea eskatu zuen Ramonek, erretegi hartan beti eskatzen zuena: «Niri ekarri Comtesa, mesedez».

Comtesa. Distira handiegirik gabeko postrea, inondik ere.

Bazkalostean hondartza aldera jo zuten pasieran Muntoan barrena, hankak luzatu, bazkaria pixka bat jaitsi eta hoteleko terrazan zerbeit hartzera. Hamabost bat laguneko taldetxoaren barruan, Ramonek Asunekin egin zuen bidearen zati handiena, emaztearekin.

35 urtez matematika erakusten aritu eta gero, Asunek bi urte zeramatzan jubilatuta. 60 urterekin lana uzteko aukera suertatu zitzaionean, bizkor hartu zuen erabakia, eta amari laguntzen orain, seme-alabekin gero, pilatesa eta lagunekin kafetxoak, ez zen aspertzen.

—Zer moduz? —galdegin zion.

Eskertu zuen emaztearen galdera Ramonek, bere kabuetan nahi baino sartuago zegoelako. Semeak bazkaritan egindako galdera eltxo bat bezala zerabilkion buru barruan: zer arraio egin behar zuen erretiratutakoan? Asunek ondotoxoz egutzen zituen senarraren egonezinak eta «alferrik kezkatzeko abilitadea», Ramonen hitzetan. Eltxoaren burrunbak lasaitzera egin zuen.

—Ondo, ondo! Ederki bazkaldu dugu, ezta? Eta zu, pozik?

—Primeran! Bapo jan dugu, bai. Jonek kezkatzen nau, baina tira, emango dio buelta.

—Bai, emakumea.

«Harreman kontuetarako aita bezalakoa baldin bada, ederki sufritu beharko dik oraindik gizajo horrek» pentsatu zuen Ramonek. Eta segidan, «baietz esango ditek, baina ez gaituk hainbeste aldatu belaunaldi batetik bestera. Aurrapenak aurrapen, gauza berdinekin sufritzen jarraitzen diagu». Ez zen geldirik egon zalea eltxo madarikatua, eta burrunbak indarra hartu zuen berriro.

Ibilian-ibilian zihoala, aitari eta osabari begiratu zien Ramonek. Aitak laurogeita hamaika urte zituen, hark ere Ramon izena zuen, eta Vicky zaintzaileak zeraman gupil-aulkian. Osaba Mariano lau urte gazteagoa zen, laurogeita zazpi zeuzkan. Haien bien pupiloa izan zen Ramon itsasoan. Bi anaiak 14 urterekin joan ziren atunetara lehen aldiz, eta ez zuten atsedetik izan 55 urterekin jubilatuta. Haien aita ere, Ramonen aitona, arrantzalea izan zen. Lana gogotik egin ondoren eta zorte kolpe batek lagunduta, beren baporea izateko aukera sortu zitzaion bi anaiei, eta apustua egin zuten. Hura zen aitonaaren ametsa, eta hil aurretik ikusteko aukera izan zuen: arrantzale izatek armadore eta patroizatera pasatu ziren Ramonen aita eta osaba 1973an.

Etxeko baporean lanik falta ez eta berak ere ez zuen beste aukerarik izan: eskola laga eta itsasora. Lehen urtetan asko kosta zitzaion baporean bere tokia bilatzea, fisikoa baino toki mentala. Izan ere, beste arrantzaleentzat bi nagusien semea zen Ramon, eta marka bat sentitzen zuen soinean, arrasto bat, onerako baino txarrerako gehienetan. Gainerako arrantzaleek presio bakarra zuten: bi patroiena, goitik behera zetorkiena. Ramonek, berriz, bi aldeetatik estutzen zutela sentitzen zuen: goitik eta behetik.

Aita eta osaba aparteko arrantzaleak izan ziren. Harrapatzen zituzten arrainen antzera, itsasoko animaliak ziren bi anaiak, basati hutsak Ramon eta Mariano, harrapakari handienak. Haien familiakoa zen bera, baina ez kasta berekoa, osabak aukera zuen guztietan aurpegiratzen zion bezala.

Biek izaera gogorra izan arren, osaba astapetroagoa zen. Ramonek askotan pentsatu izan zuen bere presentziak baretu zuela aitaren jenio bizia. Semea aurrean izanda, mingainari kosk egiten zion gehienetan, edo behintzat horretan saiatzen zen.

Osabak, berriz, ez zuen gupidarik izaten. Nazka ere ematen zion tarteka Ramoni. Esate baterako, gogoan zuen txotxo hasiberriari burutik behera pixa egin zion egun hura. Aztoratuta, maniobra bat azkar egin behar zela eta buila batean atera zen osaba kabinatik. Tripulazioa brastakoan jarri zen martxan eta, bakoitza bere zereginetara zihoala, mutil gaztea noraezean

geratu zen, ez arre eta ez so, nora joan eta zeri heldu ez zekiela. Ohartzerako osaba pixa eginean ari zitzaion, kabinaren kanpoaldetik behera, putakumeka: «Hemen espabilatuko haiz hi, alper arraioa!».

Egoera eta gertaera zakarrak maiz izaten ziren itsasoan, eta Ramoni kosta egin zitzaion gordintasun hartara ohitzea. Hamabost laguneko tripulazioarentzako eta hegaluze tona ugarirentzako tokia zuen baporeak, baina afekturako zirrikituak gutxi ziren. Behin baino gehiagotan itsasoa laga eta lehorrean lana bilatzeko tentazioa izan arren, ohartzerako jubilatzeko garaia ailegatu zitzaion etxeko patroiei, eta ordurako ofizioan trebea zenez, baporearen ardura bere gain hartzeko urratsa egin zuen.

Urte luzez osabarekin eta aitarekin ikasitakoari berezko talentua gehituta, Ramonek abiltzade handia zuen arrantzarako. Baporearen ardura hartu aurretik bere burua patroigisa proiektatzen zuen maiz, eta arrainari arrastoa jarraitzeko gai izango zela seguru zekien arren, beste obsesio batek kentzen zion loa: baporeko giroa zibilizatuagoa izatea nahi zuen. Giza harremanak kudeatzeko izan zezakeen gaitasuna zuen kezka iturri, antxoia edo hegaluze tonak baino gehiago.

Dena den, tarteka arrantzalaren bat karel gainetik putzura botatzeko tentazioa izan arren, patroiegi eginako urteetan asmatu zuen baporean giro lagunakoiagoa sortzen, eta eroso sentitzen zen haien erreferente eta nagusi izanda. Urte luzez kuadrilla bera mantentzea seinale ona izan ohi da arrantza munduan, eta bere kasuan hala izan zen.

Oroitzapenetan erabat murgilduta, etxekoekin Muntoan barrena oinez jarraitzen zuen Ramonek, eta buru barruan eltxoaren burrunba nabaritzen hasi zen berriz, erretiroaren gaiak berriro estutu zuenean. Momentu batean, osaba eta aita imajinatu zituen jubilatu aurreko asteetan: bitzita itsasoan pasatu eta gero, betiko lehorrean geratu beharrak beldurrik eragingo ote zien? Berak gorputz osoan sentitzen zuen hutsune eta egonezin hura sufrutuko ote zuten haiek ere? Ez, konbentziturik zegoen ezetz, haiek bazuten zeri heldu:

txikiteoa, eliza, moila bazterreko lagunartea... Beste garai batzuk ziren.

Berari kontrakoa gertatzen zitzaion orain: munduko plan eta aukera guztiak zituen eskura, gehiegi ziurrenik, eta oparotasun horrek ito egiten zuen. Jubilatu ziren kuadrillako lagunengan pentsatzen jarri zen: batek autokarabana erosi zuen Europan zehar bidaiatzeko; goizero mendira eta kiroldegira joaten hasi zen beste bat; hiru-garrenak beteranoen arraun taldean eman zuen izena...

Jubilazioa itsaso zabal bat izan zitekeen, edonora joateko eta edozer egiteko aukerak eskaini zitzaizkien bizitzako etapa bat, denbora eta espazio mugarik gabe. Aukeratu beharrak, ordea, itolarria eragiten zion Ramoni. Arrantzan ari zirenean, senari jarraika zirt-zart erabakitzen zuen nora jo, mende balderago edo ekialderago, hara edo hona. Moila zapaldu orduko, berriz, sena kamusten zitzaion. Lehorrean, arrantzatua izan berri den arrainarekin konparatzen zuen bere burua ezinegon estualdian: urpeko animalia baporeko kubiartan etzanda arnasa hartu ezinik, herio batean dardarka, begiekin itsasora bueltatu dezaten erregutuz. Halaxe sentitzen zen bera ere. «Arrainek badute non lasai arnastu: uretan. Nik, azkenaldi honetan, ez batean eta ez bestean; itsasoan eta lehorrean, bietan nahikoa justu nabilek», larritu zen bere baitan.

Pentsamenduak pentsamendu, Ramonek egun polita pasa zuen etxekoen konpainian, baina gauean buru barruko eltxoa berarekin eraman zuen ohera, ezkontza egunean bezalaxe.

Goizean nahastuta esnatu zen Ramon, bihar-munak jota. Bezperan jandako eta edandako guztiaren ondorioz, loa bihurri samarra izan zuen eta, goizean goiz begiak ireki zituenean, jaiki egin zen. Udazken amaiera zen, eta epel zegoen kanpoaldean; hego-haizeak goiza goxatzen zuen. Oraindik ilun egon arren, tipi-tapa Itxaspeko buelta egitea erabaki zuen, on egingo ziola pentsatuz.

Kafe hutsa edan eta gero, Anibarko Portura jo, Txankako aldapan gora pixka bat sufrutu eta Itxaspeko bidean zen ohartzerako, zuhaitzpean. Izugarri gustatzen zitzaion ibilbidearen puntu

hura: Txankako aldapa alboan laga, pare bat errebuelta egin eta bidea zuhaitzpera sartzen zenean. Hanka-pelotek atsedean pixka bat hartzen zuten han, ordekan, aldapan gora ibili eta gero.

Lasai zihoan Ramon oinez, arnasa erreku-peratuta, pentsamenduen erritmoa eta pausoa biak bat, biak bare antzera, lasai, kontrako noranzkoan zetorren korrikalari bat ikusi zenean. Ordurako zertxobait ikusten zen, eta kolore deigarriak zituen kamiseta bat nabarmendu zuen urrutira. Hamabost metrora zuela ezagutu zuen udaleko zinegotzia. Kirolari amorratua zen, arraunlari izandakoa, planta onekoa. Diosala egin zion Ramoni, pozarren:

—Egun on, Ramon! Nolatan hi ordu hauetan? Ohetik erori al haiz?

—Tira, bai, antzeko zer bait... —herriko mendi lasterketako elastikoa zeraman soinean zinegotziak, aurreko urteko ediziokoa. Kuriosoa zen kamisetarena: mendian korrika egiteko elastiko ofiziala zirudien, ia denek erabiltzen zuten entrenatzeko.

—Ondo, ondo! Pozten nauk hi ikusita, gauza bat kontatu nahi diat-eta. Ahaztu aurretik, zorionak erretiroaren kontuagatik, ondo merezia duk! Kontua duk Udalean iaz hasi ginela hire jubilazioan pentsatzen, zuena delako herriko azken baporea...

—Bai, halaxe duk, tamalez.

—Bada, etxean begi onez ikusten baduzue, zuen familia omendu nahi genikek sanikolasetako txupinazoaren egunean. Hiru belaunaldi aritu zarete arrantzan, eta oriotarron izaeraren parte handi bat gorpuzten duzue, gure itsas ondare bizia zarete. Ohore bat izango duk zuek omentzea, Ramon...

Dardarizo txiki bat sentitu eta gero izerdia hoztu zitzaion Ramoni, eta zorabio arin batek hartu zion burua. «Izaera», «ondarea», «ohorea»... Zinegotziak halako hitzak ebakitzen zituen bakoitzean bere burua erresonantzia-kutxa bat zela sentitzen zuen Ramonek, eta hitzen oihartzuna ozen entzuten zuen bere baitan: i-za-e-raaaaaa-aaa-aaaaa...; on-da-re-aaa-aaaaa; o-ho-re-aaa-aa-aaaa...

Bitartean, zinegotziak hizketan jarraitzen zuen etengabe. Haren kalakan erabat galduta, erresonantzia-kutzako hitzen hots zerutarra,

inguruko eukaliptoen usaina eta bezperako alkoholen efektu anestesikoa nahastu zitzaizkion Ramoni, eta geldi-geldirik zegoen txintik atera gabe, ia hipnosi egoeran. Bost metrora zuen laguna, baina beste dimentsio batean ikusten zuen, eta haren ahotsa makina batetik pasata balego bezala entzuten.

—(...) eta hori, Ramon, eskertuko genikek gure proposamena onartzen duzuen ala ez jakinaraztea.

Zinegotziaren erretolika amaitu zenean, kolpetik etorri zen bere onera. Egoeraz jabetutakoan, bere buruarekin haserretu zen, aurreikusi behar zuelako halako proposamen bat jasotzeko aukera. Aurrez espero izatekoa zen omenaldi hura, baina despistatuta harrapatu zuen, eta ez zitzaion erraza egin estuasunetik ateratzea.

—Ongi zagok; estimatzen diat gurekin gogoratu izana. Jarriko diat mezu bat datorren astean, eta hitz egingo diagu.

—Ederki, ba, Ramon! Pozten nauk. Egongo gaituk! —agurtu zuen zinegotziak korrika txikian.

Bidean aurrera jarraitu zuen Ramonek, enkontruak lagatako kontuak buruan zituela. Bezperako alkohola ez zitzaion lagungarri orain, pentsamendu goibel samarrak etorri zitzaizkion: «Omenaldia guri? Faborez, politikariak orain ere beren buruak omentzeko prest, gu aitzakia hartuta. Plaza beteta, hitz koipetsuekin arituko dituk arrantzakontuen inguruan, eta ni ondoan, zer esan eta nora begiratu ez dakidala...».

Haritz pare batek askatutako ezkurak ikusi zituen lurrean. Eskuan hartu, kraskatu, eta oinez jarraitu zuen. Omenaldiak omenaldi, bazen egia handi bat zinegotziaren hitzetan: bera zen herriko azken patroia, eta berea zen moilako azken baporea. Eguna ailegatuko zela jakin arren, aspalditik saiatzten zen Ramon ideia horri alde egiten, baina bueltan etortzen zitzaion.

Bere buruarekin nahikoa lan ez, eta iruditzen zitzaion bere gain geratzen zela herriko historiaren, tradizioaren eta itsas kulturaren zama handi bat, modu sinbolikoan bazen ere. Gaiari bueltaka hasitakoan, borroka pertsonal eta kolektiboak korapilatzen zitzaizkion azken urteetan, eta isilik pasa bazuen ere, asko sufritu zuen kontuarekin. Nahiago zukeen azken baporea beste batena balitz, zer arraio!

Buruan karga horiek zituela igo zuen ibilbideko aldapa pikeena, goiko hegira iritsi aurrekoa. Egurrezko bi banku zeuden han, itsasaldera begira, ipar mendebaldera. Handik hondartza ikusten zen lehen planoan, bigarrenean Mollarri eta, hirugarrenean, San Anton. Hara begira jarrita, arnasa hartu zuen sakon, eta buruak arintzera egin zion: «Tira, gure herriko flotari guk emango zioagu bukaera, baina getariarrek jarraituko ditek arrantzan oraindik ere...».

Bere kezken fokua herritik atera eta gaia modu irekiagoan ikustea lagungarri izan zitzaion. Herrian bizi, herriko bapote baten patroia izan eta herritarrekin lan eginda, bere mundua erriorean eta moilaren bueltan bukatzen zela zirudien batzuetan, eta zorionez, ez zen horrela.

Atseden hartutakoan, bankutik altxatu eta martxan jarri zen berriro. Ezkerrean itsasoa zuela, biziberritu egin zuen handik baserrirainoko bideak, goitik behera. Hala, konturatzeko ailegatu zen hondartza aldera, eta geldialdia egin zuen hango talaiatxoan. Handik hegoaldera begiratuta, itsasertza eta Hernio plano berean jartzea gustatzen zitzaion, biei batera begiratzea. Paisaia hari indar berezi bat ikusten zion, kontraste eder bat, non olatuen apar zuria eta Hernioko elurra batera ikus zitezkeen negu partean, edo betebete egindako hondartza eta mendi bakartiak uda garaian.

Ramon ez zen aspertzen natura hari begira, eta Itxaspeko buelta egindakoa beti geratzen zen hantxe tarte batean, lasai-lasai. Hondartzan ez zebilen inor oraindik, baina urrutira, hotelaren parean, neska ilehori bat ikusi zuen oinez. Bizi-bizi zebilen. Segundo batzuetan begira egon ondoren, mugitzeko moduagatik alaba iruditu zitzaion, Miren. Poliki-poliki, bera zegoen tokira hurreratzen ikusi zuen, aldapan gora.

Kirol egiteko arroparekin zetorren Miren, galtza beltzekin eta kamiseta zabal-zabalarekin. Harritu egin zen hura hain goiz ikusita, baina kolpetik huskeria bat etorri zitzaion burura: alabak ez zuen alkohola probatu ere egin bezperako bazkari osoan zehar. Nahiko arraroa egin

zitzaion, txakolinari ez baitzion ezezkorik esaten halako ospakizunetan.

Alabari begira zegoen momentuan San Martin aldean egunsentia lehertu zen laranja kolorez, eta haize terralak goxo jo zuen Ramonen aurpegia. Epelak ziren ufadak, laztangarriak. Hamabost metro eskasera zuen alaba orain, eta kolpetik, haize ufadetako batek kamiseta astindu zion Mireni, elastikoa aurrealdetik puztuz. Une horretan, denbora geratu egin zen Ramonen baitan, Miren aurrean zuela: gutxi, oso gutxi, baina triparen buelta ohi baino handixeagoa zuela iruditu zitzaion, borobilagoa. Aspaldiko partez, galdua zuen senak zerbait xuxurlatu zion belarrira, eta ona zirudien. Emozio indartsu batek dardarizoa eragin zion gorputzean, eta euforia puntutxo bat sentitu zuen une batez. Eltxoa beharrean, txori txiki baten kantu atsegina zerabilen buru barruan orain.

Parez pare jarri zirenean, Ramonek amaren antza izugarria hartu zion 34 urteko alabari: gatzetako Asunen aurpegia zuen Mirenek. Asun haurdu zegoela ikusten zuen orain, alaba tripan zuen garaian. Edertasun bera zen ama-alabena.

Gauza onak buruan, pentsatu zuen bere bizitzaren etapa berriko piezak ere ondo bat egin zezaketela, eta aspaldian ez bezala hunkitua gertatu zen Ramon. Barruan zituen korapilo batzuek lasaitzera egin zuten une batez, eta lauzpabost segundoan irudimena martxan izan zuen bizi-bizi. Buruak kalterako lan egiten zion ia gehiengutan, baina oraingoan onerako izan zen.

Bizkarrean kolpea emanda, Mirenek betiko bizitasunarekin agurtu zuen:

—Egun on, aita! Garaiz zabilta!

—Eta zu, sano-sano?

Lauzpabost minutuz aritu ziren berriketan, eta alabak Itxaspe aldera jarraitu zuen. Ramonek ahaleginak eta bi egin behar izan zituen buruan zuenari eutsi eta alabari ezer ez galdetzeko, eta moldatu zen.

Buelta emandakoan, berriro sartu zituen plano berean itsasertza eta Hernio. Tartetxo batean begira egon ondoren, besoan zuen eltxoa esku kolpe batekin uxatu eta aldapan behera abiatu zen, arin eta aldarte onean, herri aldera.

Fisherman's Tale

Aritz Pardina

Hau liburu baten istorioa da.

Fisherman's Tale du izena, eta 1939an argitaratu zuen Londreseko McNally & Co. argitaletxeak. Izenburuak dioen moduan —*Arrantza-learnen ipuina*, euskaraz—, itsasgizon baten pasadizoak kontatzen ditu 60 orrialde doi dituen liburuxoak. Ume edota gaztetxoentzako ondu zuen Tim Richardson idazleak, paragrafo motzak baititu eta kontakizuna marrazkiz osatuta baitago.

Nolanahi den, hemen azaltzera noan istorioa ez da autorearen irudimenak emandako hori, baizik eta liburuaren beraren istorioa. Izan ere, badira liburu batzuk, dendatik atera eta urte luzetan apalategi berean egoten direnak, harik eta euren jabea zendu arte; beste batzuek, ordea, gorabehera latzak pairatzen dituzte eta, denbora-tarte berean, makina bat eskutatik igarotzen dira. Bigarren multzokoa da *Fisherman's Tale*.

Nola dakidan nik hori? Bada, liburuek beti kontatzen digutelako zerbait, hitzik gabe mintzo bazaizkigu ere.

Agidanez, ale honek bi egun ere ez zituen egin Londresko liburu-denda bateko erakusleihoan, pasieran, James izeneko gizon batek ikusi baitzuen. Azaleko itsasontziaren irudiak atentzioa eman zion, eta, fina zela ikusita, iruditu zitzaion bilobarentzat egokia izan zitekeela. Dendariengana jo zuenean, liburuaren galdera egin zuen, eta langileak barruko apalategietatik eskaini zion banako bat. Ordea, Jamesek sentitu zuen zerbaitek deiadar egin ziola, halako indar ezkutu batek behartu zion ihardestera ezetz, erakusleiho hark behar zuela izan; erostekotan, hura erosiko zuela.

Horrela iritsi zen *Fisherman's Tale* Stephen txikiaren eskuetara. Aitonak bilobari zin egin zion asteburuero bisitan joango zitzaiola, liburu irakurtzeko. Liburu etxe hartan sartu zenetik, ez zen izan hura irakurri gabeko jaiegunik. Kontakizunean murgildurik, marinel bilakatzen ziren,

ohea izaten zuten itsasontzi, eta, lau pareta horien artean, hitzen indar soilak lagunduta esploratzen zituzten bost ozeanoetako urak.

Jakinekoa da, ostera, denboraren eragin geldoak guztia higatzen duela, eta, hala, Stephenen irudimenak itzartzera egin zuen. Ondorioz, igande iluntze batean, aitonari aitortu zion jada aspertu zela itsasketa-istorio hori entzuten. Hori oinazea! Ordutik aurrera, aitona hainbatetan saiatu zen mutikoaren grina berpizten; alferrik, ordea.

Gerraren ondorioz, bizitokiz aldatzea erabaki zuen familiak, eta, trasteak biltzen ari ziren batean, Stephenek aitonari galdetu zion ea zer egingo zuten *Fisherman's Tale*ekin. Azaldu zionez, hasiera batean, gainerako liburuekin jarri zuen, zakarretarako, baina susmo txarra hartu zion liburu hura botatzeari. Aitonak ondo zekien zeri buruz ari zen, liburu erosi zuen egunean sentitu baitzuen antzeko zerbait. Jamesek lasai egoteko esan zion Stepheni, Londres utzi aurretik, liburu dohaintzan emango zuela.

1940ko abuztuan, Jamesek liburu erositako denda berean utzi nahi izan zuen. Hutsik topatu zuen, ordea. «Ziurrenik —esan zuen bere artean— gerratik ihesi joana izango da jabea». Denda itxita bazegoen ere, kanpoaldean zetzan, ohi bezala, liburu betetako burdinazko kutxa. Bigarren eskuko liburuak jasotzeko erabiltzen zuten dendariak, nahi zituenari musu-truk ematen baitzizkion. Itxuraz, garai zail haietan kutxa kanpoan uztea erabaki zuen bihotz oneko liburu-saltzaileak. Jamesek pentsatu zuen kaxa hori aproposa zela *Fisherman's Tale*rentzat, denda portutik gertu baitzegoen eta Tamesis erriberako brisa erraz sartzen baitzen kale estuetan barrena.

Hilabete eskasean, baina, bolbora usaina ekarriko zuen brisa horrek berak.

1940ko irailean, naziek Blitz operazioa abiatu zuten; lehergailuz kargatutako hegazkin alemanak Erresuma Batuko hiriburura begira jarri ziren.

Lehen fasean, Londresko portua hartu zuten helburu, baina, ohi den bezala, helburua ez ezik, inguruko eraikin, etxe eta komertzioak ere eraitsi zituzten erasoek. Izugarritzko txikizioa izan zen. Gune horretan gertatu ziren zibilak azkar mugiarazi ziren metro-estazioetara, horiek egokitu baitzituzten hegazkinen aurkako babesleku moduan.

Lehenengo eraso-gauaren ondoren, hainbat pertsona saiatu zen suntsitutako merkataritzetako ondasun apurrak biltzen. Inork ez baitzekien zenbat denbora eman beharko zuten metro-geltokietan gotortuta. Hala, Sophie izeneko emakume batek, semeari eskutik helduta, geldialdia egin zuen liburu-dendaren aitzinean. Izan ere, suntsitutako erakusleihoaren kristaltxoan artean ikusi zuen burdinazko kutxa. Iraulita zegoen eta hainbat liburu lurrian barreiatu ziren. Bizkor-bizkor, ahal zituenak atzera barruan sartu, eta semeari eskatu zion kutxa gordelekura eramaten laguntzeko; elikagaiak izateaz gain, funtsezkoa iritzi baitzion denbora arintzeko liburuak eta jostailuak izateari, gehienbat, umeekin pentsatuz. Hala, ama-semeak babeslekura iritsi zirenean, kutxa hori zeramaten bion artean, eskuleku banatatik helduta.

Blitz operazioaren lehenengo faseak hilabete iraun zuen. Denbora horretan, naziek gauero bonbardatu zuten Londres. Gauek luze jo zuten zibilentzat, ohatzetan pilatuta baitzeuden eta ez baitzuten partekatzen ziurgabetasuna eta mina besterik.

Sophie, baina, bigarren gauean bertan, kutxa ireki zuen, goibeltasun hark umeak ere kutsa ez zitzan. Eskua arkan sartu eta tokatu zitzaion lehenengo liburu atera zuen; *Fisherman's Tale* zen, noski. Luzatu gabe, narrazioari ekin zion, eta hala egingo zuen hurrengo gauetan ere, eskuargiaren distira dardartiaren pean. Era horretara, haurren arreta bereganatzea gutxi balitz bezala, Sophie gaztetxo horien irudimena haizatzea lortzen zuen, harik eta sinestarazten zien arte ez zeudela metro-estazio batean gotortuta, baizik eta itsaso zabalean, olatuak ebakitzen zituen berebiziko barku batean.

Pasatu ziren urteak, amaitu zen gerra. Londres pixkanaka eraberritzen ari zen, nahiz eta bonbardaketa zital haien eragina inoiz ez zen guztiz

desagertuko. Guztiarekin ere, Sophie pixkanaka hirian bizitza berregin zuen, semearen ondoan, senarra gerran desagertu baitzen eta hiltzat eman baitzuten.

Liburuarentzat urte onak izan ziren haiek, egokitu zitzaion jabe berria oso arduratsua baitzen. Bonbardaketak amaitu eta babeslekuetik irten zirenean, Sophie kutxako liburuak ume eta gurasoen artean banatu zituen; *Fisherman's Tale* izan ezik, ezin baitzuen liburu hori edonola askatu. Liburu a Sophieren apalategian egon zen urte luzetan eta, amona egin zutenez gero, etxetik pasatu ziren ume guztiei kontatu zien marinelistorio hura.

2006ko uztailean hil zen Sophie, 88 urterekin. Azken nahietan zehaztuta utzi zuen bere ondasunekin zer egin behar zen. Besteak beste, eskatu zuen *Fisherman's Tale* etxetik gertu zuten telefono-kabinan uzteko, patuak liburuari etorkizun onena emango zion ziurtasunez.

Sophieren heriotzatik astebetera, goizez, semea kabinara jaitsi zen, amaren eskakizuna bete asmoz. Bidean, oporretan zegoen Orioko familia batekin gurutzatu zen: aita, ama eta 14 eta 16 urteko bi alaba. Eider izena zuen gazteenak. Ez luke jakingo azaltzen zergatik, baina Eiderri, hasiera-hasieratik, atentzioa eman zion ikusi berri zuten gizon ingelesak. Horregatik, begiradaz jarraitu zituen haren pausoak. Harriduraz, konTURATU zen kabinan sartu eta liburu tankerako zerbait utzi zuela han. Gurasoei gelditzeko eskatu zien, eta, gizona kalean behera nahikoa urrundu zenean, jakin-min neurrigabez abiatu zen telefono-gela gorrirantz. Bueltakoan, liburu eskuan harturik, gurasoei galdegin zien:

—Ez al da kasualitatea, gu, Oriotik Londresera etorrira, justu kale honetan gabiltzan unean, tipo batek pareko kabinan arrantzale bati buruzko liburu hau uztea?

Kasualitatea, ostera, hasieran uste baino handiagoa zen, liburu a ferryan irten baitzen Ingalaterratik, Eiderren aitak hegaldiei zien beldurra tarteko: *Fisherman's Tale* ri itsasoratzea egokitu zitzaion, azkenean! Bazirudien zoriak liburuaren alde josi zituela denboraren hariak, ederki ematen baitzuen, itsasontziko gelako leihotxoaren argitan, mesanotxean, olatuen kulunka gozoaren baitan.

Iluntzean, Eiderrek liburuko marrazki eta

pasadizoak gainbegiratzeko jardun zuen, eta, ezin esan ametsetan edo esna, ferryaren zanbuluak lagunduta, sentitu zuen istorio hori gorpuzten ari zela, ontziaren brankatik begiratu gero, saltoka ikusiko zituela arrain hiztunak, edozein unetan begiztatuko zuela piraten banderadun masta luzea, edota altxor miragarrien uhartea.

—Gurea bai *Arrantzalearen ipuina!* —esan zien Eiderrek gurasoei goizean, liluraz, liburua erakusten ziela.

Horrela iritsi zen *Fisherman's Tale* Oriora. Eiderrek hainbat urtetan izan zuen etxean. Hasieran, irakurtzen zuen noizean behin, baina, urteak pasatu ahala, interesa galdu zuen pixkanaka. Ez zekien liburuarekin zer egin. Ez zen ausartzen zaborretara botatzen. Bestalde, iruditzen zitzaion liburua ez zegoela saltzeko moduan, urteen ondorioz nahiko urratuta baitzegoen. Azala ez ezik, barrua ere hondatuta zuen: erabili zuten esku anitzek hainbat erataria markatu zuten, izan orriak tolestuz, izan umeen koloretatze-lan maiz traketsez.

2023ko maiatzera arte izan zuen Eiderrek jabetzan. Izan ere, hilabete horretan, ezbehar larria gertatu zen herrian eta, horren ondorioz, liburu-trukerako etxetxo berri bat gaitu zuten.

Arrantzale kalean, hain zuzen ere.

Ez zen, inolaz ere, kasualitate hutsa; horixe zen Eiderrek hainbeste denboran itxaron zuen abagunea.

Azkenik, iritsi zen liburua uzteko unea.

Epilogo

Maiatzeko arratsalde eguzkitsu batean eskuratu nuen liburua, banku moreko lore eta argazkiei begira ari nintzaienean. Mina berria zen oso, eta nire baitan ari nintzen oinazea eta ikara biziberritzen. Goibeltasun une horretan, ez bat eta ez bi, neska bat pasatu zen nire atzetik. Birritan pentsatu gabe, liburuen etxolaren aurrean gelditu eta ale zahar bat sartu zuen han. Besterik gabe, «arratsalde on» agurtu eta bideari jarraitu zitzaion. Nahikoa urrunduz zenean, jakingurak erasanda, atetxoa zabaldu eta eskuetan hartu nuen *Fisherman's Tale*. Marrazkiak eta testu laburrak zituenez, egokitzen jo nuen ingelesa ikasten ari zen nire semearentzat. Haatik, hau da egia: hartu nuen istantean, nire bihotzak epeltzera egin zuen, eta horregatik erabaki nuen etxera eramatea. Edozein delarik ere jo gaituen ezbeharra, liburuak beti baitira arimaren sendagai.

Alfajarin

Garazi Urretabizkaia

—*Otro café? A ver si le va a dar un patatús!*
—bota dit zerbitzariak hirugarren kafea eskatu diodanean.

—*Sí, por favor. Tendré que hacer tiempo*
—erantzun diot buruarekin baiezkoa eta ezpainekin lasaitasuna adierazten zuen erdi irribarre batez.

Kafea hartu eta, hirugarrenez, kanpora atera naiz. Ordulariari begiratu diot. Goizeko zortziak. Paisaia aldatuz doa pixkanaka iritsi naizenetik.

Haizea berotzen doa, eguzkia ateratzen. «Restaurante RAUSAN» dirdira intermitentez argizatzen zuten neonezko argiak ere itzali dira dagoeneko, eraikinaren egoera dekadentea agerian utziz. Aspaldi erretzeari utziagatik, bidaiari eraman nuen etxean bilatutako Ducados pakete zaharra atera dut poltsikotik. Egitera noanak izan dezakeen eraginaz kontziente izanik, ezpainetara lotu dut zigarroa. Bere aromak berriz konkistatu nau. Behin lagun batek esan zidan, urte luzez erretzaile

izan bazara, bizi osorako tabakista zarela. Paketea poltsikotik ateratzean barnean sentitu dudan zirrara kontuan hartuz, ni ere hala naizela aitortu beharko. Lehen zupadaren osteko eldarnioan burua pentsamenduetara joan zait...

—Aurten bai, apuntatu ingo gea eta kitto. Urte asko nijua honen zai eta aurtengotik ezta pasako! Gero gustoa ibiliko zea ta! Eztakit zertako kejatze zean hainbeste!

Horrelaxe hasi zen dena, egunean zehar izaten ditugun elkarrizketa bakan eta inperatibo horietako batean. Urteak dira dinamika horretan gabiltzala. Seme-alabak etxetik joan zirenetik ez dakigu gure artean egoten. Oso gazte ezagutu genuen elkar, oso gazte izan ginen guraso eta, hortik aurrera, bizitza besteak zaintzen pasa dugu. Bueno, pasa «du» esatea zuzenagoa litza-teke. Askoz. Elkarrengandik urruntzearen jokoan eman ditugu azken urte luzeak. Seme-alabak etxean zirenean gutxiago ikusten zen, baina ez daudenetik kostatzen ari zaigu elkarbizitza berrira ohitzen. Kabi hutsaren sindromea. Kabia mantentzen bada gutxienez... Ez gara lehen ginenak; batzuetan pentsatzen dut ez dugula elkar ezagutzen. Eta bidaia honetan argi ikusi dut zerbait egin beharra dudala. Beti bere gain utzi dut dena: seme-alaben heziketa, etxea, erabakiak. Baina gero beti kexatu naiz zerbait ongi joan ez denean. Eta beti bera nire buruan errudun. Horrek aldatu beharra dauka, berandu baino lehen. Jada beranduegi ez bada behintzat... Baina tira, noan harira. Argi utzi nion ez nuela joateko batere gogorik, ederki nintzela ni nire errutinan. Ez nuela ez eguzkiz, ez hondartzaz, ez jendez inguratzeko inolako beharrik. Baina alferrik izan zen bere inposizioari erantzun niona: «Joxepa, eztakatela ba gogoik nik horrea juteko! Ze kristota? Ni earki nao hemen txakurrakin goizeroko paseua iten.»

—Yasta bien, Iñaki! Yasta bien! Beti kantineka igualakin ibili ber al deu? Beti zuriai beira? Eta ni zer, e? NI ZER? —kasik oihuka.

Isilik geratzea erabaki nuen.

—Biyar bertan deitukoet izen emateko.

Eta azken sententzia harekin bukatu zen elkarrizketa eta hasi zen beste gutzia. Kirioetatik jota pasa zuen hurrengo aste osoa. Izena eman bai, baina plaza lortuko ote genuen ala ez beldurretan.

Jaso zuen halako batean eskualdeko arduradunaren telefono-deia. Aspaldian ikusi gabea nintzen irribarre batekin gerturatu zitzaidan sofara eta, ondoan eserita, bere eskua nirearen kontra ezarritz, begietara begira, azokako fruta saltzaileen bereizgarri den ahots goxoarekin xuxurlatu zidan: «Baguazela Benidorreaaaa!».

Benidorm. Hitza entzute hutsak zirrara berezia sortu zidan; zirrara negatiboa, noski. Nire buruan nuen iruditegira jo nuen automatikoki: goizeko 5etan jaikitzen diren jubilatutako 6tarako sombrilla ur ertzean jarria uzteko. Hotelak, hotelak eta hotelak. Ingeles mozkorrak. Beroa. Maria Jose eta bere akordeoia. Buffetetako kolak. Kamisetarik (eta lotsarik) gabe tripa errea bistan malekoitik lasai paseatzen diren gizonak. Arratsaldeetako telebista programetako kazetari amateurrak «Calle del coño» deritzon horretan gora eta behera «koño» esateagatik euskaldun direla sentitzen duten horiei elkarrizketak egiten... HOTZIKARA.

—Azkenen baguaz! Ez al dizu ilusioik iten? —galdegin zidan, begiak ilusio malkoz puzten zitzaizkion bitartean.

Galderak kolpetik jaitsi ninduen pentsamenduen erresumatik.

—Ez bereziki, baina, besteik ez bada, jungo gea —erantzun nion suabea izan nahian.

Eta hor bai, malkoak braustaka atera ziren. Baina oraingoak ez ziren ilusiozkoak.

Zigarrokinari azken atxikia eman eta berriz paisaiari begiratu diot. Azken pentsamenduak mugituta utzi nau. Orain ikusten dut ez nuela jakin haren ilusioari eusten, berriz ere niretik hitz egin nuela, bere beharrak kontuan hartu eta errespetatu gabe. Ez nintzen kontziente izan esaldi horrekin emandako minaz. Bueno, orain banaiz eta ezta gutxi.

Konturatzerako, Eroskin geunden Veranoski promozioiko bainujantzi laranja butano bat probatzen. Bat erosis gero, beste bat opari. Horia, oraingoan. Diskretuki pasa nahi duenarentzat hautu ezin hobea. Gero eta gertuago zegoen bidaia, astebete baino ez zen geratzen Agua Azul

izeneko 3 izarreko hotolean gure uzkiak pausatzeko. Horixe baitzen plana, funtsean. Urola Kostako 56 jubilatuz betetako autobusa zortzi egunez Benidormera. Planning-ean otordu guztiak barne genituela esana zen, baita gaueko animazioak ere. Eta guztia buruko 165 euroren truke. «Ganga bat, Iñaki! Ganga bat! Etxen eotia baino merkio ateratze zaigu!» Eta hor, hitz magiko horiekin justuki, pixka bat gehiago kontentzitu ninduen. Ezin ukatu tentagarria zela eguna supermerkatuetako katalogoetan maukarik handiena borobiltzen ibiltzen den batentzat. «Oferta non, ni han!» Horixe da nire leloa!

Eguna gerturatu ahala, motibatzen joan nintzen. Hiru egunez dieta ere egin nuen *pure-berduretara*, nire zerbeza-kupelatxoa pixka bat jaisteko. Baina ilusioa maitasun platonikoa bezain efimeroa izan zen, bi egunen faltan Joxepa ez tul eta ez tul hasi eta bidaia bertan behera uztera behartu baitzen.

—Baino zu jun, e? Jainkuan izenen! Behingoz tokatuko zaigu ta baten batek aprobe txala! Ni hemen ear ki moldatuko naiz. Total, katarro txiki bat beste ik ezta! Aaaaaaaatxis!

Mila aldiz saiatu nintzen azaltzen ez zela momentua, berarekin geratuko nintzela, ez nuela joan nahi. Baina alferrik... azkenean, amore eman nuen. Ezkerraldeko Altos Hornosetatik ateratako pieza bat baino gogorragoa du burua, egoskortzen delarik ez du balio ezertan saiatzea. Men egin eta kitto.

Hantxe joan nintzen, beraz, gaueko 22:00etarako Zarauzko San Pelaio geltokiaren parera. Hantxe zeuden besteak: hoge i bat jubilat u, denak maleta eskuan eta irribarrea ahoan. Bazter batean jarri nintzen, inor ezagunarekin ez topatzeko esperantzan. Harrigarritzat kalifikatu nuen puntualtasunez iritsi zen autobusa. Bete-betea zegoen. Suertez, bi eserleku libre aurkitu nituen atzealdean eta hantxe eseri nintzen, butaka zaharrekin mimetizatu nahian. «Joxepa hemen balitz...» esan nion nire buruari.

Bidaia izugarria izan zen. «Abeer, Azpeitikok, altxa besua!» batek, mikroa eskuetan hartuta. «Ueee, hemen gaudee!» «Ta Getaritik? Baten bat ba al dao? Benga, lapajalek, ez lotsau!» «Oriyotarr ik ba al deu?» Erreguka hasi nintzen eserlekuen artean inor nire presentziaz ez

ohartzeko. «Oriyotarrak, ijituak!» Beste batek. «Bueno, bueno... hau talde polita aurtengua! Motibatuta zaudete e? Lehen urtia dezuenentzako ni Mertxe naiz, koordinadora. Eozein problema baldin bazue hemen izango naiz. Eztat asko geyo esateko, laxte argik itzaliko itugula eta begik irikitzeako Benidorren izango geala! Lasai, hiru bat bier geldituko gea-ta pixa iteko. Ordun hoixe, hartu zuen mareotako ta lotako pastillak eta laxter arte!».

«Joxepa hemen balitz...» Zenbat aldiz pasa ote zit zaidan esaldi hori bidaiak iraun zuen ordu guztietan. Ez ziren hainbeste izan, baina niri eternitate bat egin zit zaidan. Gauerditan egin genuen lehen geldialdia. Tuter a inguruan. Jendea lasterka bizian jaitsi zen komunera. Ni ez nintzen autobusetik jaitsi: lehen ordua telefonoan sudokuak egiten pasatu ostean, erdi lo nengoen ordurako. Bigarren geldialdia 02:30ean izan zen. Eta hor bai, hor jaitsi nintzen...

Beste zigarro bat atera dut, nire buruari zin eginez azkena izango dela. Sei ordu daramatzat Zaragoza inguruko Alfajarin deritzon restop honetan. Pixa egitera jaitsi eta, atera naizenerako, autobusa joana zen. «Eskerrak!» oi hu egin dut barru-barrutik. Jatetxeari itzuli osoa eman diot lehenik. Han ez zen ez ijito, ez lapajale, ez koordinadorarik. Segituan pentsatu dut nirekiko: «Inor ez da falta zarenik ohartuko». Normala. Gau ez hartu genuen autobusa, presaka sartu nintzen atzean toki diskretua hartu nahian, eta nire ondoan ez zegoen inor eserita. Ordu horietan ez dira zerrenda pasatzen hasiko. Han joan dira Agua Azul aldera jublatu zoriontsuak eta Veranoskiko beherapenez eta beldurrez betetako nire maleta. Falta naizela ohartzeko, Joxeparen ondoan egongo naiz. Eta oraingoan bai, nik zainduko dut.

Zigarroa bota eta barrara gerturatu naiz berriz, oraingoan tripa beteko didan zerbaiten bila. Espainian egiten dituzten patata-tortilla lodi idor horiei begira nagoela, atetik talde bat sartu da.

—Antxon, hik zer behar duk? Kafea eta kitto?

—Egun on! Ai, ama, euskaldunak altzeate?

Nundik zatozte? —galdegin diet begiak diz-diz.

—Ba, oraintxe Benidorretik! Ederki pasatu deu! Oain Donostira bueltan.

—Donostira? Autobusen tokiyik ba al dezue neretzat? —eta dena esplikatuz diot.

—Bai, azken orduko lau baja izan ziren. Gurekin etor zaitezke arazorik gabe! Baina azkar bukatu pintxoak, bagoaz-eta!

—Eman minutu bat. Azken gauza bat in berdet.

Lasterka abiatu naiz komuneko sarreraren dagoen Telefonikako kabina zaharraren bila. Eskuetan hartu dut telefonoa. Seinalea ematen du. Txanpon bat bota eta zenbakia markatu dut:

—Bai? Zein da? Aaaaaaatxis!

—Joxepa, ni naiz. Maite zaitut!

(A)FI(K)ZIOA

Ainhoa Mujika

—Ossstrrraaa! —aldegina dio bat-batean, bere buruari zapla, eskuineko masailean, belarrondoko bat ematearekin batera. Txu-txu trenean zihoan, bakar-bakarrik, txankleta eta eguzkitakodun lekuko epailez setiatuak, duela hilabete eta 14 egun Boga-Bogako zerbitzari begiurdin hari ergelkeria hura bota ziola gogoratu duenean. *Nola liteken? Tuntuna!*

Lítost (*txekierazko hitza*): *norbere miseriaren espektakularekiko lotsa*

—Milan Kundera

Hondartzako geltokian jaitsi da. Ez-tokiak omen dira geltokiak, baina Sara leku bila dabil.

Eskuineko oina jarri du lehenik, eta ezkerrekoa bestearen pare-parean, ondoren. Eskuinaren ekin dio pausoari. Bi belardien arteko bidean barrena petrilerara iritsi eta han eseri da. Dunen gainetik itsasoari begira egon da, irudimenean hegan behatzak dantzari, duela 15 urte ikasitako mekanografia teknikekin « i t s a s o a » ordenagailuz idazten ariko balitz bezala. *Inork ez zakin zer egiten dudan neure baitan. Ala bai?*

Tok-tok! Ala nok-nok? Hots egin dio desirak edo nahiak edo apetak edo... *ez zakinat zein hitzek zehazki*. Bere buruaren ardatzarekiko ziaboga hartu eta Mola-Molako terrazan ainguratu du gorputza; batek daki nora egingo dion ihes buruak!

Kafe huts bat eskatu du eta kaiera zabaldu:

Mola mola (*latinez*): *ilargi-arraina (euskaraz), pez luna (gaztelaniaz). Baina*

eguzki-arraina esaten omen dute alemanek eta ozeano-eguzkia ingelesek.

Ilargia ala eguzkia? Gaua ala eguna? Itsasoa ala mendia? Herria ala hiria? Fikzioa ala errealitatea? Zergatik aukeratu behar du bat?

Literaturaren existentziak frogatzen du bizitza ez dela nahikoa

—Fernando Pessoa

Atzerritar bat dirudi duela 13 urte graduondokoa egiteko utzi zuen jaioterrian. Madrilen, Rotterdamen eta Bartzelonan bizi izan eta gero, Oriora itzuli da.

Hurrengo geltokia: gurasoen etxea.

Helmuga: bere burua, bizitzaren esentzia, patua... nork daki?

Ez utzi objektu pertsonalik trenean. Mila esker.

Definizio eta aipuen kaiera motxilan gorde eta bestea atera du. Arkatzaren goialdearekin bi kolpetxo azalean eman eta orduan zabaldu du, magia egitera balihoa bezala. Egiari zor, halaxe da. Ahizparen hilketa ezkutuan ikertzen ari den argazkilari holandarra, sei urte furgoneta zahar batean bizitzen daramana, Sarak zirrimarratzen dituen orrietan baino ez da bizi.

—Eeezzzzz! —aldegina dio boz gora—. Ez dun sinesgarria!

Azken lau paragrafoak suntsitu ditu gainean arrasto lodi bat eginda. Poliki eta indarrez zanpatu du koaderno lapitzaren puntarekin, punta hautsi eta zuloa egiteraino; hiltzaile batek biktimari

sabela ebakiko liokeen modura, akaso? *Hori dun! Hiltzailea gizonetza izango dun. Ze originala, Sara!*

Hasperen zakar batekin batera, libreta itxi du kolpera. Hobe hunake trama aldatu. Drama handiegia hunake ipuin baterako eta hobe dun narrazio labur bat idatzi. Nobela batekin hasiko bahintz, erotuko hintzateke!

Ero: iz. eta izond. **1.** Zentzu edo adimen gutxikoa. «Zein ero eta zentzugabe jokatu dudan!»

2. Zorua, zentzua galdu duena.

Zentzua? Sarritan galdetu dinat honek guztiak ba ote duen zentzurik: ondoko mahaiko andreak txakurrarentzako izozkia erosteak; hondartzara etxeko traste guztiak hartuta auskalo nondik etorri eta eguna belarretan etzanda pasatzeak; kuadrillako guztiak ezkontzen eta erditzen ari diren bitartean, gurasoekin bizitzeak; Orion bizita, oporretan Benidormera joateak; bizitza definitzen aritu ordez, definizioak biltzeak; nire bizitza bizi ordez, besteen bizitzak asmatzeak...

—Libre dago aulki hau? Eskerrik asko, guapa!

Ezagutzen ez nauen tipo batek eskertzen itzalean halako atrebentzia izateak... Balio handiegia ematen zaien hainbeste «mesedez», «mila esker», «eskerrik asko», «eskerrik»... «eskerrik?» (oka egiteko gogoa sartzen zaidan) bezalako kortesiei.

Edukazio onaren mozorropean ibiltzen dira lotsagaberik handienak

—Inaxi, gure amona zena

Nahiago ditinat adornorik gabe hitz egiten duten mutilak: baldarrak, baina zuzenak; zakarrak, baina onak ... Boga-bogako begiurdina bezalakoak?

Lipar batez jaiki eta kanpinerantz abiatzea pentsatu du. Baina han egongo ote dun? ala jaieguna izango din gaur? Eta han balego? Eta sartuko bahintz? Eta garagardo bat eskatuko bahio? Eta ea berarekin afaltzera joan nahi dunan galdetuko balin? Eta baietz erantzungo bahio? Eta afarira soineko beltz luzearekin joango bahintz? Eta eskutik helduko balin? Eta lepoan musu bat eman? Eta larrutan egin? Matrailak gorritu zaizkio. Tuntun halakoa! Non

egingo hunake larrutan? Amatearen etxean? Kotxerik ere ez daukan-eta! Gainera, Euskal Herrian ligatzea zailagoa dun...

Gaurko laugarren kafeari azken zurrutada eman eta bi oinak parean jarri ostean, eskuinekoa gidari, etxerantz abiatu da. Erriorantz jo du lehenik, eta, bueltan-bueltan, txikitik hainbeste gustatzen zitzaizkion ahateak, oiloak, antzarak eta abarrak ikusi, eta bidegorritik Boga-Boga parera agertu da. Hor zagon hire marinela! Hoa ba! Ez! Ikusi nain! Segi etxera! Hau lotsa! Hi bai, oiloa!

Lotsa: iz. Erridikuluak duintasunaren lozorrotik esnatzen duen harrabotsa

—Sara Olariaga Etxeberria

Idaztea dohaina eta gaixotasuna da.

Pozten naiz kutsatu nintzelako

—Charles Bukowski

Grafitiei begira doa, aurrez aurre datozkion turistei jaramonik egin gabe. Baztertuko ditun! Nire herrian nagon! Ala ez? Iphonea atera eta selfie bat egin du atzean saregilea duela. Instara igo eta instant batean like, like, like, like... 8, 15, 41...

Bakardadea da individualismoaren txanponaren beste aldea: populazioaren laurdena etxean bakar-bakarrak hiltzen da, oharkabea, eta ez ditu inork faltan hartzen, auzokideek usaina sumatu arte

—Iñigo Martínez Peña

Smartphonea eskuineko ipurmaisailleko patrikan sartu eta giltzak atera ditu motxilako poltxiko txikitik. 500 metrora dagoen etxera sartzeko dagoeneko prest.

—Saraaa, aspaldikooo! —euforiko, baimendu gabeko bi musu eman dizkio, besarkada batekin batera, 1Bko Karmenek—. Bisitan etorri al zara? Argaldu egin zara! Ze guapa zauden!

—Bai... uda pasatzera etorri naiz... —Ahal bezain azkar eten dio bizilagunari elkarrizketa eta eskaileretan gora jarraitu du: koska bat, bi koska, koska bat, bi koska...

Zergatik esan dion hori? Ez dakin eta zer egingo dunan! Txolina! Eta zer esango nionan ba? Lanetik bota nindutela egunero berandu joategatik? Aurrezki guztiak xahutu nituela eta ez nekiela zer egin? nora joan? Amateko eta

aitatxoren habira itzuli naizela? 35 urterekin paga ematen didatela? Ez dakidala zer egin nahi dudana? Ala bai... Idazle izan nahi dudala? baina ez naizela ausartzen? Ama izan nahi dudala? Kuadrillakoak bezala... bere alaba bezala... Ala ez... ala ez dakidala, baina nahi izanda ere ez dudala bikotekiderik? Ez dudala etxerik? ez dudala xentimorik? Ez naizela argaldu? Gizendu egin naizela? eta badakidala ondo geratzeko esan didala? baina gaizki sentiarazi nauela?

Arnasestuka iritsi da bigarren solairura. «Ongi etorri!» dio alfonbra ajatuak. Zorabiatzen ari da.

Diafragma: diafragma da erraietako emozioen epizentroa
—Nerea Loiola

Txori ttikia nintzelarik esan zidaten kaiolan bizitzeko sortua nintzela.

Orain arrano bihurtu naizenean kaiola hautsita alde egingo dudana beldurrez, libro naizela sinestarazi nahi didate; horregatik ireki dizkidate atea egin dezan hegaz baina luze gabe ohartu naiz hanka harkaitz bati lotu didatela kate motz eta astun batez
—Joxean Artze

Giltza sartu eta bueltarik eman beharrik gabe ireki du atea. Egongelako besaulkian dago aita, Sabanako lehoiei begira. Sukaldean ama tomateak enbotatzen. Badaezpada... beti eduki behar dira erreserbak. Badaezpadakoen belaunaldikoak dira Sararen gurasoak. Inork ez du ezer esan.

Isiltasuna: iz. 1. Kezkak dantza egiteari uzten dionean garuneko zirrikitu guztietara zabaltzen den bakea.

2. Norbere etxean sartu eta inork ezer esatekorik edo ezer esateko asmorik ez duenean urdaila erretzen duen ultzera.

—Sara Olariaga Etxeberria

Sara logelara joan da zuzenean. Koloretako laukiz betetako edredoiaren gainera erortzen utzi du bere burua. Tok-tok, Sara gaztetxoaren mundura sartu da: ispiluan Argitxoren pegatina; ikasmahaiaren gainean hormaren aurka jarritako kortxoan batek daki noizko eskola-ordutegia eta adiskideen argazkiak (inauterietan, Kukuarrin, Salouko ikasbidaian...); kortxoaren goialdeko bi apaletan, liburuak (*Harry Potter*, *Ostegunak*,

Ostiralak, *Millenium*, *Cien años de soledad*...). Paretako goteleak iragan usaina dauka eta ateko kisketari isiltasuna dario.

Familiatako isiltasunak porlana bezalakoak dira. Garaiz mugitu eta gainetik kentzen ez badira, gogortu egiten dira, eta gero oso zaila da haiek gainetik kentzen
—Karmele Jaio

Burkoaren azpitik, herrian integratzeko esperantzatsua, irakurle-taldean irailerako proposatutako liburua atera du: *Deitora zaitzala Tigrisek*. *Eta hi? Nork deitoratuko hau hi? Guadarramak? Llobregatek? Mosak? Oriak?*

Zaharra naiz, eta arrotza zait nire seme-alaben mundua. Nire alabei ardura handiz aplikatu dizkiet niri inposatu zizkidaten arauak. Niretzat egindako presondegi bera eraiki dut haien inguruan. Nire mundua justifikatzeko, iraurarazi egin dut
—Emilienne Malfatto

Zorionekoa ni nire zoritxarrean. Zertan habil, Sara? Iparra galdu dun, gurasoenera itzuli behar izan dun, ez daukan alokairuan etxe bat hartzeko sosik eta ez dakin sekula hire jaioterrian etxe bat erosteko lain izango dunan (kostako herrietan jaio izanaren kostua, postale-tako herrien aurkia eta ifrentzua); baina Boga-bogako begiurdin ezezagunarekin kateatu, txortan egin, hurdun geratu... eta inork ez hinduke akabatuko. Are gutxiago hire anaiak.

Yo soy yo y mis circunstancias
—Ortega y Gasset

Azken orrialdea irakurri, malko bat isuri, liburua itxi eta kalera irtengo da berriro Sara. Ez, ordea, hogei aldiz atea giltzaz itxi duela ziurtatu baino lehen. Baina gaur ez dauka lanera joan beharrik. Gaur bizitzera irtengo da, besterik gabe. San Juan ermitaren ondoko egurrezko mahaietan jesarriko da, ipuin bat idatziko du, berria, zerotik hasi eta buka, noraezean ibili gabe, eta Euskaraz Gazte literatur lehiaketara aurkeztuko du.

Gero gerokoak!

LUIZIAK

Ainhoa Mujika

Luiziak gara
bihotzaren

a
m
i
l
d
e
g
i
e
t
a
n

Ez dakit inoiz ume izaten utzi zizuten,
ez dakit inoiz ume sentiarazi zaituzten,
ez dakit inoiz barruko umea aterako duzun.

HORMAK gara
normak,
gurasoen espektatibetan.
Unez une ume
ameslari hari
bizibidea
berea ala nirea?
marratik atera gabe
markatu ziotenak.

Poesiarik ezean,
zer da haur bat?
Lur biziak erauzitako
lo kanta bat.

Luiziak gara
bihotzaren

a
m
i
l
d
e
g
i
e
t
a
n

Ez dakit inoiz baztertu zintuzten,
ez dakit inoiz zapaldu zaituzten,
ez dakit inoiz baloratuko zaituzten.

Aiztoak gara,
gaiztoak,
nerabeen mihietan.
Gazte aske,
lodi hori
erdiz erdi
ebakiko dutenak.
Berezi: ihesi!
Arraro: akabo.
Sententzia jarria dago.

Poesiarik ezean,
zer da gazte bat?
Lur biziak zanpatutako
panpin bat.

Luiziak gara
bihotzaren

a
m
i
l
d
e
g
i
e
t
a
n

Ez dakit inoiz bortxatu zintuzten,
ez dakit inoiz jotzen zaituzten,
ez dakit inoiz ahaldunduko zaren.

Sua gara
izua,
emakumeen erraietan.
Neska lizun,
kezka aizun,
ikuskizun?
Zeure baitan
darabilzun
mehatxua.

Poesiarik ezean,
zer da emakume bat?
Lur biziak irentsitako
trapu zahar.

Luiziak gara
bihotzaren

a
m
i
l
d
e
g
i
e
t
a
n

Ez dakit inoiz hautsi zinen,
ez dakit inoiz bizirik hil zaren,
ez dakit inoiz altxako zaren.

Mamuak gara,
damuak
goizegi hildako baten etxean.
N1eko enegarren
bihurgune
eta une
hartan
bertan
hil zinen.

Poesiarik ezean,
zer da biktima bat?
Lur biziak errepide ertzean ehortzitako
lore sorta bat.

Ez dakit inoiz ulertu zenien,
Ez dakit inoiz ulertzen zaituzten,
Ez dakit inoiz ulertuko nauzun.

Poesiarik ezean,
zer da bizitza?
Lur biziak hildako
amets bat.

Ezer ez ta asko

Xabier Iribar

Doinua: Komeni zaigun ixtoria bat

1
Guraso zaharrak lehenago eta
orain lehengusu ta anai.
Marea bizik gustoko ditut,
nago ilargiaren zai.
Harri azpiak miatu behar
nik itsaso barea nahi.
Zerbait eskatzen hasten bagera
eguzki pixkat ere bai

2
Alarmak jo du goizean goizo.
Benga, goazen! Altxa gora!
Ohea horren azkar uzteko
gustokoa izango da.
Ondo gosaldtu, prestatu dena,
hartu behar den denbora,
zerbait ahaztuta berriz etxera
ez itzultzeko gerora.

3
Egunsentian etxetik irten,
egun eder bat espero.
Arrantzak zerbait eman dezake
goizean jaiki ezkeru,
urak behera egindakoan
bada hainbeste genero:
olagarro bat harrapatu nahi,
etxean jateko gero.

4
Arrisku pixkat badu berekin,
hori da gauza jakina:
bidetxurra da estu-estua
gainera oso zikina.
Gauean ihintza egin du eta
lurra dago blai egin,
mendian behera irrist eginda
ez nuke hartu nahi mina.

5
Arroketara iritsitakon,
hemen bakea arnastu,
lehengo kontuak ta oraingoak
nahiko nituzke nahastu,
gure aurrekoek irakatsia
ez dezagula ahaztu.
Arropa zaharrak soinean baina
egiten naiz aberastu.

6
Karraspioa, durdo, dontzeila,
muxarrarekin batera,
lanperna, lapa, karakil, triku
ta olagarroa bera,
itsas-izarra, musto, ziorra,
kako eta kainabera...
Gure aitona ere etortzen zen,
hortik kontuak atera.

7
Hankak uretan sartu ditugu,
nahiko hotza dago baina.
Harri batetik bestera noa,
nahiz eta dagon labaina.
Ez du urruti ibili behar,
hartzten baitiot usaina.
Olagarroak leku ona du
putzu hontan, alajaina!

8
Itsas-izarra ere hor dago,
gizakiaren laguna,
arrantzan gauden garaian beti
zortea ematen duna.
Ur sakonetik umiltasunez
argitu ohi du iluna;
hau ikusita umore onez
pasa liteke eguna.

9
Bisutsa dator aurpegira ta
olatuaren aparra,
Bbelauneraino uretan nago,
sentituz bere indarra.
Ezer baino lehen ondo pentsatu
non ipintzen dugun marra,
itsasoari errespetua
dago eduki beharra.

10
Izkira dabil lotsati xamar,
presentzi handirik ez du.
Amaxapoa ugari dago,
harri gainak ditu belztu.
Zirrikituan nekorak bere
burua nahi du babestu.
Hauek beraien lekuan daude
ni nabil larri ta estu.

11
Belar gorriak korronteakin
ondo egiten du dantza,
baina uraren tenperatura
ez al dihoa gorantza?
Klima aldatzen ari da garbi,
ezin da egin zalantza.
Gizakiari etorkizunak
berdin-berdin dio, antza.

12
Hara! Hor doa olagarroa,
lasai arroken artean.
Nik kakoa prest jarri dut baina
ihes egin dit kolpean.
Mila arantza topatu ditut
sasian eta otean,
baina hau baino handiagorik
ez dakit inon ote dan.

13
Tinta botata ezkutatu da,
azkar galdu diot pista.
Ura zikina utzi du baina
berak ona dauka bista.
Ez dakit nora alde egin duen,
hortan da bera artista.
Gaurkoagatik hala beharko du,
ez dut ikusten berriz ta.

14
Gaur esku hutsik noa etxera;
bihotza, berriz, beteta.
Arrantzan inoiz probatu arte
ez degu jakiten eta.
Bi aste barru ilargiari
jarriko diot arreta,
itsasbazterrak zer bait niretzat
izango baitu gordeta.

Oria: Aizkorritik itsasora

Xabier Sukia

Doinua: Ekuadorren dago Quito

1
Ur arrasto bat Zegaman,
sortzetik karga zeraman,
Aizkorriko marka denen
gurutzea nork eraman?

2
Mugako urak Seguran,
irradi uhinen mugan.
Iparrak hego berriak
astindu al ditu gugan?

3
Ur burdin Olaberrian,
ola zaharrak ur berrian.
Industrialia al da soilik
iraultza Euskal Herrian?

4
Bare bizi da Beasain,
errekako ura bezain.
Abiadura handian
CAFea hoztu behar zain.

5
Errugbian Ordizia,
azokaren ur bizia.
Beti ez da borobila
artzainaren gutizia.

6
Lehorrean Itsasondo,
meatze harrobi hondo.
Arbelean itsasoa
ikusten da oso ondo.

7
Ur biziak Legorretan,
errepide ertz horretan,
mozolok beti dute
plazer ontza bat zorretan.

8
Ura Ikaztegietan,
urbanoa mendietan.
Madrilera doan trenak
ikatza du begietan.

9
Oriako Alegria,
Angelaren sorteria,
Iparragirrek aurkitu
zuen ilargi erdia.

10
Arraunlarien Tolosa,
presarik ez duen prosa,
ur gezaren izerdia
eta gaziaren poza.

11
Pozik dago Anoeta,
kukua entzun da eta.
Poltsikoak urrez eta
ibaia urez beteta.

12
Tanto berri bat Irura,
tantaka izerdi-ura,
trinketea xare sozial
onena den herri hura.

13
Amasa eta Villabona,
joko garbiz joko ona.
Xisteraren ubidean
irristatzen da pertsona.

14
Zubi bat zara Zizurkil,
nekazaritzaren gurpil.
Fraisoroko eskolatik
ur handietara murgil.

15
Presa artean Aduna,
euskararen arnas duna,
hiztun arrantzan dabilen
barnetegi euskalduna.

16
Gerra garaian Andoain,
Adarra eta Belkoain.
euskal lubaki Berria
Martin Ugalde da orain.

17
Aupa Lasarte-Oria,
Ibaiaren hil zoria.
Errioa izateko
hor hasten da historia.

18
Errekondoan Usurbil,
Artzetarrek lau egur bil.
Zumetaren koloreak
bizi-baratzean Urbil.

19
Anguletan Aginaga,
bai, gauez, ibili gara.
Gula batek inoiz Ala
ikustea bezala da.

20
Oria, hori, Orio,
herria eta errio.
Aizkorrik itsasoari
azken arnasa zor dio.

Juan Zen

Iñigo Gaiton

Mutil ona zen Juan Luis,
lagunentzat eta ezizenez
Juan Zen.

Anai-arrebek maitea zuten,
jolasean eta borroketan
bakea jartzen zuen bakarra
bera baitzen.

Udaberri garaian,
edozein zelaitan eseri
eta, loreei begira-begira jarrita,
orduak egiteko gai zen
gure Juan Zen.

Egun batetik bestera
lanetik bota zuten,
eta nagusiari esker ona adierazita
joan zen.

Sekula ez zioten galdetu
«Zer moduz, Juan Zen?»
Lasai eta aldarte onean beti,
ostiral edo astelehen.

Umetan ia negarrik egin gabea,
gaztetan gutxi kexatu zen,
helduaroan presarik ez zuen izan,
zahartzaroan gaixo ona izan zen.

«Ai, ai, ai, gure Juan!
bake-bakean joan zen!»,
heriotzaren urteurrenean
gogoan izan zuten.

Jaio eta hil zen, bai,
gure Juan Zen,
eta bere bizitza
poema bihurtu zen.

Aulki morea

Rosi Lazkano

Doinua: Ai ze plazera

1

Aulki morea, bisitan-edo
etorri naiz zuregana,
esan beharrik ez dago noiztik
sortu zaigun harremana.
Une batean minez lehertu
ginen ia herri dana,
begi aurrean jarri zenigun
deguna eta gerana,
une batean minez lehertu
ginen ia herri dana,
tamalez, Lourdes ez da bakarra,
ezta ere iragana.

2

Gelditu gabe pasa izan naiz
aurretikan hainbat aldiz,
gaur etorri naiz, asteartea,
eta arratsalde erdiz.
Mingainak ezin asmatu eta
begiek diote diz-diz,
errazago zait hitz egitea
futbolaz ta eguraldiz.
Mingainak ezin asmatu eta
begiek diote diz-diz,
konturatu naiz nola nabilen
konpromisoz ta ausardiz.

3

Etsipenaren mamu beltzetan
gertatua eta gero,
zu hain polita ikustea ere
igual ez nuen espero.
Gau beltzenean argi berria
bilatua dezu-edo,
pasatakoan alferrik baita
balitza eta balego.
Gau beltzenean argi berria
bilatua dezu edo,
nola harritu izan nahi badet,
aulkia, zure bezero.

4

Lehen marroia eta arrunta,
orain jantzi zara morez,
feminismoan ezaugarritzat
jarri ohi degun kolorez.
Esaldia hau zeure egina
konpartitu kendu ordez,
filosofia horretan nahi det
leku txiki bat, faborez,
esaldia hau zeure egina
konpartitu kendu ordez,
nahi dudalako begiratzea
ingurua begi hobez.

5

Garai batean pentsatzen nuen
izan behar zala otsan,
nola hezituak izan ginen
beldurrean eta lotsan,
gizonezkoen autoridade
eta dotrina zorrotzan.
Orain ahalduntze bidean nabil
eta kantatzen det oholtzan,
gizonezkoen autoridade
eta dotrina zorrotzan,
oraindik ere baten batzuek
nahi gaituzte kate motxan.

6

Kolpea kolpez erantzuteak
nahiz sortzen didan ardura,
neu ere ezin azaldu hemen
hobeagoan modura.
Purrustadaka bota ohi ditut
amorrua ta tristura,
albokoari mina emanez
kendu nahian nire hura,
purrustadaka bota ohi ditut
amorrua ta tristura,
ea zurekin aurkitzen dudan
konpontzen duen pintura.

7

Ordu erdira zaude etxetik
nator eutsi ezinean,
ikaran ordeztu gustukoa den
dardarioa soinean.
Edozer gauza esaten dizut
filtro gabe mingainean,
baina amona, ama, emazte...
berriz etxera noanean
edozer gauza esaten dizut
filtro gabe mingainean,
ea gero zer agertzen zaigun
paper txurian gainean.

8

Bigundu zaigu koadernoarekin,
apunteak orrietan,
nik neure gauzak esan dizkizut
zuk zeureak bota bueltan.
Arima ere ba ote duzun
pentsatu dut batzuetan,
azkenerako lagun modura
ari gerala hizketan,
arima ere ba ote duzun
pentsatu dut batzuetan,
xamurtasuna aurkitu baitut
zure egur gogorretan.

9

Ez nago ziur zein izango den
bisita hauen emaitza,
ez dut zapuztu, ezta ere puztu
etorria eta hitza.
Haize epelak nola laztandu
ahaztu nahi ez den ekaitza,
ez da denbora, jarrera baizik
aldatu lezakeen giltza.
Haize epelak nola laztandu
ahaztu nahi ez den ekaintza,
aulki atzeko jolas-parkean
haurrak saltoka dabilta.

10

Egin dizudan buelta bakoitza,
berezi eta propio,
aldartearekin mareen pare
orain jaitsi, orain igo.
Paxada eske etorriko naiz
igual geroz eta gehio,
norbaiti kontatu behar dizkiot
ahuldade eta konfesio.
Paxada eske etorriko naiz
igual geroz eta gehio,
agur-usaindun bisita denez,
aulki morea, adio!



ORIO

marea bizian